

EKITEN Lehiaketa 2016

Landa Ingurunearen Garapenari buruzko Ideia eta Proiektuen VIII. Lehiaketa.

Ekintzailetzako EKITEN programan parte hartu duten enpresa-proiekturik onenei sariak banatu zaizkie. Sari banaketa Arrasaten izan zen, 2016ko Uztailak 1ean. Ekitaldia Goi Eskola Politeknikoan izan zen eta bertan MUko ordezkariak, Gazte Enpresa eta Kimu Berriko ordezkariak, Debemen eta Deba Garaia Landa Garapeneko Elkarten ordezkariak izan ziren.

Aurtengo edizioan, guztira 35 proiektu aurkeztu dira Mondragon Unibertsitateko EKITEN lehiaketara eta 104 ikaslek hartu dute parte. Unibertsitate Latinoamerikarretara 11 proiektu aurkeztu dira eta 23 ikaslek hartu dute parte. Lehiaketa Mondragon Unibertsitatearen Ekiten sustapenerako eta ekintzailetarako programaren barruan kokatzen da, eta babesleak artean Debabarrenako Debemen eta Debagoieneko Deba Garaia Landa Garapenerako Elkarteak aurkitzen dira.

Landa-Ingurunearen Garapenari buruzko Ideia eta Proiektuen VIII. Lehiaketaren Bigarren saria Paula Cabo Lalanne (Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Graduiko ikaslea) eta Iñigo Larrañaga Aiestaran (Produktu eta Zerbitzuen Diseinu Estrategikoko Masterreko ikaslea) ikasleek aurkeztutako proiektuarentzat izan da. BERTAKO PRODUKTUAK BERTATIK izeneko proiektua tokiko produkzioa saltzeaz arduratzen den saltokia da, baina produktuak saltzeaz gain beste zerbitzu batzuk eskaintzen ditu: baserriko produktuak jaso, dendan saldu eta bezeroak bereganatzea. Produktuak dendan bertan eros ditzaketen bezeroak gain beste bezero mota batzuk ere izango ditu saltokiak: jatetxeak, eskola-jantokiak eta abar.

Proiekturik bideragarrienak eta enplegua eta aberastasuna sortzeko gaitasun handiagoa duten proiektuak saritzen dira. Horiek dira "Ekiten" programaren epaimahaiak kontuan hartu dituen premisak 2015-2016 edizioko irabazleak aukeratzeko.

EKITEN lehiaketak proiektuen ebaluazio prozesuan, aurtengo edizioan ere proiektuak aukeratzeko, publikoak bozka egiteko aukera izan du. Lehenengo fasea gainditu ondoren, bideo bat grabatu dute proiektuak ezagutzera emateko. Bideo hauek, MUko YouTubeko kanalean, EKITEN 2016 zerrendan kargatu dira eta facebooken ere bai. Bideo hauek jaso dituzten "atsegin dut" guztiak izan dira kontutan publikoaren balorazioa egiteko.

Urtez urte indartzen ari den lehiaketa honen helburua hau da: ikasleengan ekintzailetzaren kultura txertatzea eta enpresa propioa sortu edo negozio berriak martxan jartzeko eta ingurunean garapena sortzeko uste osoa sustatzea.

Aurkeztutako proiektuak ebaluatzeko kontuan hartu diren irizpideak hauek izan dira: ideiak aberastasuna eta enplegua sortzeko duen gaitasuna, proposamenaren bideragarritasuna eta ideiaen originaltasuna eta izaera berritzailea.

Landa Ingurunearen Garapenerako Ideien eta Proiektuen VIII. Lehiaketa.

2.- Saria: BERTAKO PRODUKTUAK BERTATIK.

Taldea: Paula Cabo Lalanne eta Iñigo Larrañaga Aiestaran.